

Josu Landa: pentsamendua, Lurra eta argia

Josu Landa: thought, Earth and light

JON MENTXAKATORRE ODRIOZOLA ETA AITOR ZUBEROGOITIA ESPILLA*

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Mondragon Unibertsitatea)

1. Landa, Gogoaren orrialdeetan

Gogo aldizkariaren ale berezi hau Josu Landa Goyoganari eskainitako monografia da. Landa poeta eta filosofoa Caracasen (Venezuela) jaio zen 1953an, 36ko gerratik ihesi joandako lekeitiar batzuen altzoan. Hitz eta arima ditu ikasbide, bai bere burua ezagutzeko bidean, bai irakurle eta ikasleei irakasteko asmoan, bai Euskal Herrian eta Ameriketako emandako sus-traietan.

Soziologian lizentziatu zen Ekialdeko Unibertsitatean (Venezuela) eta filoso-fian egin zituen maisutza eta doktoretza Mexikoko Unibertsitate Nazio-nal Autonomoan. 1988tik, aipatutako azken unibertsitate horretako Filosofia Saileko irakasle osoa da. Gogoko dituen gaiak etika, heziketa, literaturaren filosofia eta teoria politikoa dira, eta ikastaro ugari eman ditu gai horien gai-nean, Platon, Sokrates, heleniar eskola eta Errenazimentuko platonikoen es-kutik. Beste hainbat iker-irakasgai izan ditu Landak, hala nola Aristotelesen *Poetika* eta *Erretorika*, Pseudo-Longinok eta Burkek sublimiaz idatzitako trata-tuak, Baumgartenek garatutako teoria estetikoak, Kanten pentsamendu pre-kritikoa eta kritikoa, Heidegger eta Gadamerrek arteaz eta poesiak idatzitako testuak, eta baita Hegel, Schopenhauer eta Nietzscheren pentsamendua ere.

Hamaika dira artearen eta unibertsitatearen arloetan egindako ekarpe-nak, liburu, artikulua, hitzaldi, errezitaldi edo kudeaketa bidez, eta horren ai-tortza dira, besteak beste, poesiako Punto de Partida eta Carlos Pellicer me-

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Jon Mentxakatorre Odriozola eta Aitor Zuberogoitia Espilla. Humani-tate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Mondragon Unibertsitatea, Dorleta auzoa z.g., 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa) – jmentxakatorre@mondragon.edu eta azuberogoitia@mondragon.edu

Nola aipatu / How to cite: Mentxakatorre Odriozola, Jon; Zuberogoitia Espilla, Aitor (2026). "Josu Landa: pentsamendua, Lurra eta argia", *Gogo*, 26, 9-17. (<https://doi.org/10.1387/gogo.28704>).

Jasoa: 2026-05-28. Onartua: 2026-05-30

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziarekin dago

xikar sariak, 1987an eta 1996an jasoak, hurrenez hurren, eta Venezuelako Andrés Bello Ordena, 1997an jasoak. Landaren lan akademiko eta artistiko nagusien eta itzulpen ezagunen zerrenda testu honen bukaeran aurkituko du irakurleak.

2008-2010 artean zazpi ale izan zituen *Ínglima. Revista de Filosofía* sortu eta zuzendu zuen, eta 2023tik Ezgaraiko eztabaidak (*Disputaciones intempestivas*) taldearen koordinatzailea da. Gaur egun bi mintegi iraunkor zuzentzen ditu Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan: filosofiaz eta bizimoduaz bat, 2012tik, eta Schopenhauerren pentsamenduaz beste bat, 2021etik.

Landaren soslaia ugaria denez, hainbat dira hartara hurbiltzeko bideak. Horren ondorio eta erakusle dira ale berezi hau osatzen duten testuak, ondorengo lerroetan Landaren pentsabidea aurkeztuko duen hitzaurre honez gain.

Lehen atalean, Landa filosofo, poeta eta letra-gizona aztertzen duten hiru testu ditugu: filosofia aztergai duen Guillermo Hurtadoren “Josu Landaren filosofiaren hiru une”, poesia ikertu duen Eduardo Milánen “Josu Landa poetarentzako txatalak” eta *Zarandona* eleberria iruzkindu duen Joseba Sarrionandiaren “*Zarandona*: exilioa eta literatura”. Lehenak Landaren filosofiaren oinarriez dihardu; bigarrenak, haren poesiaren sustrai eta ekarpenez; eta hirugarrenak, haren fikzio autobiografikoaren minez eta irakaspenez.

Bigarren atalean, ale honen editoreok Landari eginiko elkarriketa dugu. Oin-oharrez eta erreferentzia akademiko hornitutako solasaldi mamitsua da, Landaren jatorria, nortasuna eta emaria ulertzeko lagungarri. Bere bizitzaren eta ibilbide filosofiko-poetikoaren nondik norakoak azalduz, hamaika dira Landak aipatutako erreferentzia historiko eta intelektualak.

Hirugarren eta azken atalean, Landaren zenbait testu hautatu ditugu. Alde batetik, Landak berak nabarmendutako “Poesia – Filosofia – Bizimodua” saiakera, eta, bestetik, Norys Alfonzok ale honetarako aukeratu eta aurkeztutako Landaren bost poema. Testu horiek gure filosofo eta poetaren irudi argitsua ematen dute, zuzen-zuzenean egilearen lumaren bidez.

Landaren pentsabidearen aurkezpenari heldu aurretik, ale berezi honen editoreok gure esker onena adierazi nahi diegu *Gogo*a aldizkariako Kepa Korta, Joana Garmendia eta Larraitz Zubeldiari. Haientzat bezala, monografiko hau irakurle euskaldunarentzat aberasgarria izango delakoan gaude.

2. Bigarren erroztapeneko pentsalari eta ekintzaile

Landaren pentsabide eta ekinbidea garaiz kanpokoak dira. Ez datoz bat xx. mendeko bigarren erdiko eta xxi. mendeko lehen erdiko joera eta giro filosofiko-artistikoarekin. Filosofia eta poesia han eta hemen, hamaika argi-

taletxe eta aldizkaritan, hamaika txoko eta aretotan, eman eta ematen ditu. Kontsolidatutako kapitalismoari iskintxo eginez, merkatuaren logikan itota ez dauden bide eta guneetan ari da. Baina ekinbide hori ez da nahikoa Landa sasoiz kanpoko filosofo eta poetatzat hartzeko. Aroz kanpoko antzinako greziarren oinarritzeagatik da. Zentzu horretan, Nietzscheren bidean koka dezakegu, espirituz eta lumaz gure aldiari beste zerbait ekartzen dion heinean.

Zer da, Nietzschek XIX. mendeko giro positibista, eboluzionista eta industrialaren aurrean salatu zuen legez, Landak erabat baztertua dakusana? Sakoneko errealitatea, fenomenoaren ehunaren *aletheiaren*, fenomenoaren itxuren gainetik kentzearen, bidez esna dagoen gizakiari agertzen zaiona. Nietzschek objektibismo gogorrenari aurre egin zion; Landak, subjektibismo gotortuenari. Gaur egun, mundua eta haren baitako existentzia subjektibitatearen ondorio baino ez dira, Landaren aburuz.

Izan ere, sekularizazioak pertsona indibiduo bilakatu du, kultura entretenimenduzko kontsumo, morala artaldearen joera eta ongizatea edozein preziotako segurtasun-nahia. Hori dela eta, bizitzaren zentzua eta bizitza zentzuduna garatzeko aukera galdu da, hein handian. Ez dago jatorrizko egiaz, ongiatz eta ederraz hitz egiteko gaitasunik, eta, ondorioz, ez dago giza duintasunari oinarri iraunkorrik emateko iturririk. Horren aurrean, modernitatearen baitako ezker-eskuin aukera guztiak agortu direlakoan, Landak beste zerbaiten berri ematen digu; beste oinarri eta sustrai batzuen bila ari zaigu. Ildo horretan, haren poesia jardunaz honako hau dio Milánek “Josu Landa poeta-rentzako txatalak” artikuluan:

Garai poetikoen gatazka bizi dugu: postmodernitatea eta agortzen ez den eta agortu gabe dagoen modernitatea gurutzatzean sortutakoa. (36. or.)

Koiuntura poetiko aldi berean moderno eta postmoderno honetan, zailena oreka-puntu bat topatzea da, handik hedatzeko. Tradizioaren legatuaren eta abangoardia estetiko-historikoek proposatutako hausturaren arteko oreka bat da. Bidegurutze horretantxe dago Josu Landaren poesia. (38. or.)

Josu Landaren poesiak ez digu ahazten uzten egiazko bizitza dagoen “beste nonbait” hori egiazko poesiaren aldamenean dagoela, zer izan garen eta beti eta oraindik zer garen ahazten ez den lekuan. (40. or.)

Sakontasun-bilaketa horretan *ethos* greziarraren indar-iturriak aurkitu ditu —besteak beste, eta editoreekin izandako elkarriketan esan bezala, Pierre Hadoten lanari esker—, eta, haietatik edanez, modernitate kontsolidatu eta nekatuaren onto-antropologia gainditzeko duen bizipen noetiko eta argitsuaren bidean barrena joan zaigu. Sakontasunaren bilaketa horrek, ordea, ez du Landa gorantz eramango, beherantz baizik: Lurrerantz. Grezia klasiko eta

helenistikoko *physis*aren pentsalarien tradizioari heldu dio Landak, *physis*aren ontologiaren sustrai ktonikoari, eta ez du transzendentziara jauzi egin, immanentziara baino. Hori dela eta, tradizio horren emariko krisirako etikak eta jarrera lurkoia aldarrikatu ditu Landak gaur egungo mundurako. Metafisikaren eremuan *physis*a bila aritzeagatik, bigarren nabigazioko pentsalari baino, bigarren erroztapeneko pentsalari dela esan dezakegu, ondorioz.

Simone Weili legez, Landari ezinbestekoa zaio erroztapena. Erroak askatasun erro zaizkio, munduarekin berezko harreman kutunak eratze bide baitira. Izan ere, aurrerapenarekiko miresmenak lotura horiek eraisten ditu, eta, Landarekin batera, galde genezake: non dago ur garbiko ibairik behe-bailara eta hirietan? Non da zuhaitz sendoko basorik? Non harri, lur eta egurrez eraikitako etxerik? Non etxetik auzora eta plazarako gizarterik?

Landak aldarrikatzen duen izate lurkoiak, hortaz, apurtutako erlazioak osatzera darama. Horregatik, modernoak ez diren zergati eta zertarakoen atzetik ibili da, modernitateari modernitate-kanpotik kritika eginez, modernitate-barrutik eginez gero, lehenago edo geroago, asmorik onenak hilda geratzen direlakoan dagoelako Landa. Aldaketarako itxaropena benetako itxaropen izan dadin, gaur egungo egoerari kontrapuntua itsu geratu diren ertzetatik jarri behar zaiolakoan dago gure filosofo-poeta. Horregatik ikusi du, adibidez, aipatutako elkarriketan adierazi bezala, Arizmendiarietarengan zerbait berezia, modernitateari zinezko ekarpena egin dioten iturria eta engaiamendua:

Hor badago beste puntu bat, humanismoan oinarritutako ikuskera bat: pertsonaren duintasuna eta langileen duintasuna. Nire ustez meritutzela dauka langileen seme gazteak eskolaratu izanak, eskolan ikas zitzaizuten baliozko ezagutzak. Hori proiektu batean sartzea, proiektu hori euren lanaren bidez sostengatuta eta enpresa-egitura emanda, eta, gainera, hori ondo egitea eta berau Euskal Herrian zein munduko leku askotan zabaltzea... Zer gehiago behar da, txo? (118. or.)

Landak ez du Arizmendiarietaren fedea, baina, Azurmendi legez, federik gabeko fededuna da: benetako fededunengan konfiantza osoa jar dezakeena, harengandik ikasketa hartzeko gogoz dagoena. Arizmendiarietaren pertsonalismoa eta gizabidea eredugarriak zaizkio, eta giza duintasuna ardatz duten munduarekiko berezko harreman kutunak pentsatzeko ikasbide. Izan ere, Landari oso garrantzitsua zaio giza existentziaren muinetik abiatzea. Hurta-dok "Josu Landaren filosofiaren hiru une" artikuluan (32. or.) esan bezala:

Gizakiok beste gizakiekiko eta unibertsoaren gainerakoekiko korrespondentzia ere bilatzen dugu. Errealitatean aurkitzen dugun zentzua, neurri batean, gauzekiko dugun korrespondentziaren arabera da, baina giza zentzu hori zentzu sakonagoko beste modalitate bat izango litzateke, kosmosarena, munduan egia eta zentzua bilatzera bultzatzen gaituena.

Hain zuzen ere, giza erronkei soluzio teknikoak jartzen dizkiegun heinean, itota gaude. Existentzia eta zentzuaren eremuko galderei ezin zaie erantzun teknikorik eman; gizatasuna ageri-agerian uzten duten jardunetan aukera bakar eta teknikoa ematea arimaren hilketa da. Hutsegite horretan, lehen esan bezala, ezker-eskuina ez dira bereizten, klase-konpromisoagatik ez bada. Lumaz idaztea, tokietara oinez joatea, egonean egotea eta abar teklatuz, ibilgailuz zein denborari etekina ateraz ordezkatu dira, teknikoki eragin edo pentsatuz. Gizatasun mailan ordaindutako eta oro har beti ordaintzera behartutako prezioa handiegia da, bizimoduak, berezko harreman kutunak egiteko moduak ito eta, azkenik, ezabatzen ari garelako.

Sarrionandiak “*Zarandona: exilioa eta literatura*” artikuluan (83. or.) galdetzen du: “Nor sustrai daiteke gaur egun hiri asfaltatu batean? Zementuaren gainera, nor sentitzen da ba bertako eta seguru? Nor ez da sentitzen modu batera edo bestera bere sorterritik kanporatuta?”. Herritik erauzitako sustraiei oihua nabari daiteke hor, baina Landak, herritartasunaren sustraiei dagokien lurra ematez gain, Lurrean nahi ditu giza sustraiak, Euskal Herrian zein Ameriketara izan. Landak berak elkarrizketan (93. or.) adierazi bezala: “Ezin da gizaki izan sustrai konkreturik gabe, baina, horretan soilik gertatuz gero, gutxitu, murriztu egiten da bat. Unibertsaltasunera ireki behar da. Baina hori unibertsaltasun hori hutsa bada, horrek ere ez du balio. Nik oreka hori nahi dut bizi, hortxe bizi naiz ni”.

Oreka hori ere bigarren erroztapen bidez lortu du Landak. Euskal Herrian eta Ameriketara errotu da, eta bi-bietan bigarren erroztapen bidez. Venezuelara jaio zen eta Euskal Herrira, arbasoen lurraldera, erroztara bidali zuten gurasoek, eta Ameriketara, gurasoen etxera eta Venezuela zein Mexikora zabalera, erroztara itzuli zen handik urteetara. Horregatik ere esan dezakegu, hortaz, bigarren erroztapeneko pentsalaria dela.

Bizimodu orekatu eta sustraitu hori erdiesteko, Landarentzat ezinbestekoa izan da poesia lantzea. Modernitatearen estualdietatik askatzeko eta berezko harreman kutunetara itzultzeko hizkuntzaren bila dabil; poesiaren osabide eta argi bila. Hain zuzen ere, Landak hizkuntza bera leher eginda dakusa, eta nekaldi horretatik atera nahi du. Horretarako, Lurra dauka. Lurra, errealtate ontologiko eta zentzu-iturri gisa. Horren gainean berreskuratu eta garatu nahi du humanismoa, gizatasuna erdigunean jartzen duen zentzugogoeta legea. “Poesia – Filosofia – Bizimodua” testuan (124. or.) dioenez:

Arlo pertsonalean, zentzuaren ikuskera poetizista eta immanentista baten alde egiten dut. Lurra nahikoa da *poiesisak* zentzuaren beharrezko erreferentziak ezartzeko (...) Ez dut harago joan beharrik; ez da behar munduz haraindiko eta gizakiz gaindiko erreferenterik, zentzuaren ordena finkatu eta bizitzeko.

Berdin esango digu, poesiaren indarrez, “Aski da lurra” poemaren amaieran (130. or.):

Zertarako astindu begiradak zeruertzetik harago.
Zertarako osasungaitzen prozesuak Bataren bila.

Soilik Hemen intseminatzen gara guztiz.
Soilik Hemen isurtzen gara guztira.
Soilik zoru honetan gara guztia.

Errealitatearekiko lotura sakonak bilatzen ditu Landak antzinako greziarrengan, esan bezala. Eta *physis*aren tradizioan eta emarian bereziki esanguratsua zaion pentsalaria Platon da. Atenasko filosofoarengandik ikasi du *noesis*aren pentsabideak *dianoia*ren diskurtsoaren lorpenetatik askoz urrunago eta sakonago daramala; egungo akademiako azalpen kontzeptual eta gizarteko pentsamendu kritikoa baino askoz urrutirago eta hondorago. Filosofia autentikoaren bidea aurkitu zuen Platonengan, elkarriketan esan bezala.

Platonen eta Landaren ildoan, zein da benetako filosofoa? Zein da filosofia autentikoa? Ezagutza noetikoan errotzen dena. Maila horretatik aritzeak egiten du Landa garaiz kanpoko pentsalari beste ezerk baino gehiago, eta maila horretatik eskaintzen dio gaur egungo munduari, berezko harreman kutunen galeraren ondoren, bigarren erroztapenerako aukera.

Ilustrazioko pentsamenduak Kantekin goia jota, ezagutza noetikorako bidea erabat ilundu zen, filosofo-poeta erromantikoek XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX. mendearen lehen erdian salatu bezala. Izan ere, ezagutza noetikoa analisi kategoriko, kontzeptual eta diskurtsiboaz haragokoa da, ezagutza dianoetikotik jauzia egitea eskatzen du. Ahozko edota bihotzeko hitzak duen indarraz eta errealitatearen ikustaldiz, euren horretan diren izaki edo gauzen irudi bidez gertatzen da. Hortaz, ezagutza noetikoa bizipen noetikoaren ondorio da, azken hori errearen zuzeneko ulerkuntza edo atzematea den neurrian. Ezagutza hori, ondorioz, esanezina da; ezin da idatzi, poetikoki ez bada. Poesiak eta bizimoduak baino ezin dute eman ezagutza horren berri, Landak ondo dakienez. Horregatik esango du, “Poesia – Filosofia – Bizimodua” testuan (123. or.), “*poiesisa* eta *noesis*a prozesu banaezinak” direna.

Deshumanizazio garaian, Landak arimaz hitz egiten digu, beraz. Arimaren lanketaz eta bidez. Nori entzun diezaiokegu halakorik gaur egun, teknozientziak irentsitako gizarteetan, eta, batez ere, Euskal Herrian?

Adierazi dugun legez, arimak irudi bidez ezagutzen du: euren horretan subjektu diren objektu eidetikoaren ulerkuntza zuzena figurazio bidez egiten du. Irudiak eta haien dirdira ariman jalkitzen dira, eta, ondorioz, arima bera landu, leundu egiten dute. Arimaren kalitatea harengan dauden ezaugarrien arabera da, eta ezaugarri horien arabera gero eta bizipen noetiko sako-

nagoak izatea. Platonen eta Landaren ildoan, ezagutza, benetako ezagutza, argiaren eta ikustaldiaren eremuan gertatzen da.

Izan ere, bizipen noetikoak ezohiko indarra duen argitasuna dakar. Horrek arimaren garbiketa eragiten du, arimaren *ethosa* aldatzen du, eta norbera errealitatean sustraituago egotea. Horregatik da Landa, ezer baldin bada, argiaren filosofo-poeta: argitan dabilen filosofo, argiaren berri hitzekin eman poeta. Beharbada horregatik, une batetik aurrera, ezingo diogu jarraitu. Landa ulertzeko ez da arrazoiarekin (*dianoiarekin*) aski, *noesis*a barnebiltzen duen arrazoimen (*logos*) osoa behar da. Bera da, ordea, gure bila dabilena. Zaitetik Platonen atarian jarri gintuen; Landa, berriz, atarira gure bila itzultakoa da, Sokratesek haitzulo barnekoei eskatu bezala. Landak, hortaz, Platonen gorengo maila eskatzen dio bere buruari.

Esandako guztiagatik, Landa sustraietara doan pentsalaria da, sustraiak zaintzen dituen. Itsasoak banatzen dituen bi lur emankorretan ari da, bihotz-ahotan euskara jatorra ibiliz, eta garaia garaiz kanpoko poesia eta filosofia emanez. Batetik bestera eta beti sakonera so eginez, urrunetik begiztatuz, gerturatuz doi-doi igarri eta aurkitutako argitan itsutu ondoren, bizipenaren neurrirako hitza, argi egiten digun hitza, josten ari zaigu Landa, mundu honek Lurra berreskuratzeko aukera izan dezan, eta, horrekin, giza-kiak arima guztiz galdu ez dezan.

3. Josu Landaren bibliografia hautatua

Lan teorikoak

- 1982. *Miseria de la Universidad*. Cumaná: Ekialdeko Unibertsitatea.
- 1987. *Ensayo sobre la decadencia*. Mexiko Hiria: ELII.
- 1996. *Más allá de la palabra. Para la topología del poema*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Filosofia eta Letren Fakultatea. Berrargitaratua in 1997, Caracas: La Casa de Andrés Bello.
- 1997. *Los valores humanos en México*. Juliana Gonzálezekin batera koordinatua. Mexiko Hiria: Siglo XXI. Berrargitaratua in 1998, Mexiko Hiria: Siglo XXI.
- 1997. *Para pensar la crítica de poesía en América Latina*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Ikerketa Filosofikoen Institutua.
- 2002. *De archivos muertos y parques humanos en el planeta de los nimios*. Mexiko Hiria: Arlequín.
- 2002. *Poética*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica. Berrargitaratua in 2015, Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica eta in 2023, Venezuelako Valentzia: Caraboboko Unibertsitatearen argitaletxea.
- 2004. *Aproximación al verso libre en español*. Venezuelako Bartzelona: Fondo Editorial del Caribe.
- 2005. *La idea de universalidad de Justo Sierra*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Filosofia eta Letren Fakultatea. Berrargitaratua in 2016, Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Filosofia eta Letren Fakultatea.

2009. *Tanteos*. Mexiko Hiria: Afinita.
2010. *Canon city*. Mexiko Hiria: Afinita eta Caracas: Fondo Editorial del Caribe. Berrargitaratua in 2024, Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
2012. *Éticas de crisis: cinismo, epicureísmo, estoicismo*. Venezuelako Bartzelona: Fondo Editorial del Caribe; Guanajato: Guanajatoko Unibertsitatea eta Bartzelona: Paso de Barca. Berrargitaratua in 2015, Bartzelona: Paso de Barca.
2013. *El método en Marx*. Caracas: Monte Ávila Editores Latinoamericana.
2013. *Ensayes*. Mexiko Hiria: Eternos Malabares.
2014. *Maquiavelo. Las trampas del poder*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
2016. *De camino al ser*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
2017. *Platón y la poesía*. Mexiko Hiria: La Jaula Abierta.
2019. *Teoría del caníbal exquisito*. Mexiko Hiria: La Jaula Abierta. Berrargitaratua in 2020, Bartzelona: Paso de Barca.
2023. *Filos de reserva*. Mexiko Hiria: Beyond Dimensions. Apailatzailea: Donovan Artega Ocampo. Argitaratzailea: Manuel Monroy Correa.
2024. *Humanismos primordiales*. Mexiko Hiria: Conahcyt-Fondo de Cultura Económica.
2025. *Platón: la filosofía como ciencia política*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
2025. *Que el ser es por interpretación*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa, Fundación Ethos eta Fondo Editorial del Caribe.

Sormen-lanak

1988. *Bajos fondos*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
1990. *Los tankas de Arropain*. Maracaibo: Colecciones Clandestinas, Dirección General Sectorial del Consejo Nacional de Cultura. [Euskara-gaztelania edizio elebiduna: 1991. *Arropaineko tankak / Los tankas de Arropain*. Bilbo: Laida. Itzultzailea: Josu Landa].
1990. *Viaje a Cipango*. Venezuelako Bartzelona: Fondo Editorial del Caribe.
1992. *Falasha / Falaxa*. Gaztelania-euskara edizio elebiduna. Mexiko Hiria: Mexikoko Euskal Etxea.
1995. *De ánimas, viajes y otras falacias*. Mexiko Hiria: Lagarto.
1996. *La luz en el vano*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
1996. *Treno a la mujer que se fue con el tiempo*. Mexiko Hiria: Arlequín. Berrargitaratua in 2006, Mexiko Hiria: Arlequín eta in 2019, Querétaro: Las Brujas de Oviedo.
1999. *Zarandona*. Mexiko Hiria: Mexikoko Euskal Etxea. [Euskarazko itzulpena: 2000. *Zarandona*. Tafalla: Txalaparta. Itzultzailea: Josu Landa].
2004. *Alisios*. Gasteiz: Bassarai.
2004. *Josu Landa. Antología poética*. Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
2004. *Y/O (Ensamble)*. Puebla: LunArenas.
2006. *Estros. Antología poética*. Caracas: Monte Ávila Editores Latinoamericana.
2011. *Extinciones*. Venezuelako Merida: El Otro, El Mismo. Berrargitaratua in 2014, Mexiko Hiria: Pico de Gallo.
2013. *Anafábulas*. Caracas: Mal Tiempo. Berrargitaratua in 2014, Mexiko Hiria: Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa.
2016. *La balada de Cioran y otras exhalaciones*. Bartzelona: Paso de Barca eta Venezuelako Bartzelona: Fondo Editorial del Caribe.
2017. *Neverí flash*. Venezuelako Bartzelona: Fondo Editorial del Caribe.

2019. *Mundo neverí*. Mexiko Hiria: Monosílabo.

2025. *Pasible*. Mexiko Hiria: Monosílabo.

Itzulpen lanak

1997. Octavio Pazen *Eguzki harria*. Mexiko B. F.: Instituto Vasco-Mexicano de Desarrollo.

2009. Jose Gorostizaren *Amaibako heriotza*. Toluca: Bonobos eta Bilbo: Labayru Ikastegia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.